

"Euskal Herriko Ahotsak" proiektuak 10 urte bete ditu

- **Hamarkada bat daramate jende nagusia grabatzen. Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea biltzen, Bizkaian hasi eta Zuberoaraino.**
- **Martxoaren 15ean, ostirala, ekitaldi txiki bat antolatu dute Elgetako Espaloia kafe antzokian, urteotan laguntzaile izan dituzten ehundaka herritarrei eskerrak emateko.**

Euskal Herriko Ahotsak proiektuak aurtan 10 urte bete ditu, eta www.ahotsak.com webguneak berak bost. Hori ospatzeko, eta orain arteko ibilbidea laburtzeko, jaialditxo bat egitea pentsatu dute. Elgetako Espaloia kafe antzokian izango da, martxoaren 15ean, ostirala, arratsaldeko 18:30ean.

Izan ere, dagoeneko **10 urte igaro dira Euskal Herriko Ahotsak proiektu** honek [bere lehen urratsak eman zituenetik](#). **2003. urtea zen**, eta orduan hasi ginen lehenengo elkarrizketak egiten Bergara aldean. Harrezkero, gutxinaka-gutxinaka, proiektua handitzen eta sendotzen joan da, gaur egungo neurria eta itxura hartu arte.

Harro gaude egindako lanaz, eta harro gaude, batez ere, bidean aurkitu ditugun lagun guztiakin. Izan ere, herririk herri lagundu diguten ehundaka lagunik gabe, [Ahotsak](#) ez zen izango oraingo laurdena ere.

Ekitaldia martxoaren 15ean izango da, arratsaldeko 18:30ean, Elgetako Espaloian.

Bertan, 10 urteotako ibilbidearen laburpena egingo dugu, webgune berritua erakutsi (atal berriekin) eta, batez ere, proiektuan parte hartu duten laguntzaile, elkarte eta erakunde guztiei gure esker ona erakutsi nahi dizuegu. Izan ere, 10 urteotan **500 lagun baino gehiagok lagundu digute Ahotsak.com proiektuan** (materiala uzten, transkripzioak egiten, kontaktuak egiten,...). Ahotsak ez da gure proiektu bat, guztiona baizik. Eta bide honetan lagun askok egin dugu topo: elkarteak, udalak, erakundeak, ikerlariak, elkarrizketetan eta transkripzioekin lagundu diguten dozenaka lagunak...

Ekitaldi arina izango da. Ahotsak-eko pasarte eta edukia erakutsiko dugu, baina lagun izan ditugun musikari, bertsolari eta artisten laguntzarekin. 45 minutu inguru izango dira. Ondoren pintxo batzuk eta musika apur bat. Ostiral arratsalderako plana ;-)

Egitaraua

- **Sarrera eta ongietorria Mikel Laskurain aktorearen eskutik.** Laskurainek gidatuko du ekitaldia.
- **Ahotsak 10 urte:** historia, ibilbidea eta datu nagusiak (Bideo erakusgarria)
- **Ahotsak.com proiektua: Zergatik eta zertarako hau guztiau?** Zenbait ikuskizun, proiektuaren balioa azpimarratzeko, grabatutako zenbait pasarte eta zuzeneko emankizunak uztartuz (musika, dantza, bertsoa...). Proiektuarekin zerikusia duten gonbidatuak izango ditugu, besteak beste **Onintza Enbeita eta MP5 musika-taldea**.

- **Webgune berriaren aurkezpena eta webgunearen "Komunitatea"** atalaren aurkezpena.
- **Laguntzaile guztiei eskertza.**
- **Sari-emanaldia.** Ahozko ondarearen bilketan zeresan berezia izan duten zenbait laguni oroigarri bat emango diegu.

Ondoren, **pintxo batzuk** hartuko ditugu eta berriketarako tartea izango dugu. **20.30etatik aurrera, MP5 taldeak kontzertua** emango du.

Zer da Ahotsak.com?

Proiektu honen helburu nagusia da, Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak katalogatu eta hedatzea; hau da, gure herrietako adineko jendea elkarrizketatu eta euren euskara eta bizipenak jasotzea eta herritarren artean zabaltzea.

Proiektuaren oinarriak 2002-2003 urteetan landu ziren, metodologia, baliabideak eta alderdi teknikoa ezarriz. Ondorengo 3 urteetan, 2004-2007 bitartean, bilketa lana hasi zen eta jasotako materiala lantzen hasi ginen eta 2008ko apirilaren 16an aurkeztu zen ww.ahotsak.com webgunea. Handik aurrera, proiektuak aurrera jarraitu du, etengabe ari baikara materiala biltzen, lantzen eta datu-basea eguneratzen.

Hauek dira proiektu honen ezaugarri azpimarragarrienak:

- [Euskal Herri osoko](#) datuak biltzen ditu.
- Publikoa eta doakoa da.
- Proiektu irekia da eta interesa duen orok [har dezake parte](#).
- Hainbat [ikerlari eta proiektu](#) biltzen ditu.
- Metodologia sistematikoa eta zehatza jarraitzen da.
- Informazioa [herrika](#) eta [gaika](#) antolatuta dago.
- Era guztietako hartzaileak izan ditzake: ikerlariak, ikasleak, zaletuak, senideak... filologoak, historialariak, antropologoak...

Proiektuaren eta webgune honen ardura [Badihardugu Euskara Elkartearena](#) da. Hala ere, egitasmo honen asmoa da, Euskal Herriko edozein elkartek eta ikerlarik parte hartu ahal izatea Ahotsak.com-en, eta dagoeneko hainbat udal, elkarte eta ikerlarirekin ari gara [elkarlanean](#), denon artean ahalik eta proiektu sendo eta biziena lortu ahal izateko.

10 urtean egindako lana

Hamar urteko ibilbide honetan Ahotsak proiektuak emaitza ederrak lortu ditu.

Adibidez:

- Dagoeneko **265 herritako lekukotasunak** jaso dituzte, **Euskal Herriko 7 lurraldeetan**.
- **5000 lagun baino gehiago** elkarrizketatu dituzte.
- Jasotako edukiaren zati handi bat sarean ikus daiteke dagoeneko, www.ahotsak.com webgunean. Guztia ere **libre, doan eta CC-by-sa lizentzia** librearekin. Une honetan **15.000 bideo-pasarte** daude online.
- **100 udal eta elkarterekin lankidetzaz hitzarmena** izenpetu dute. Gainera, Unibertsitateekin ere hitzarmenak izenpetu dituzte, Ahotsak-ek jasotako Corpora unibertsitate mailako ikerketetan erabiltzeko.
- Ahotsak-eko materiala ikastetxeetan erabiltzen hasi da, "**Ahotsak Ikasgelan**" proiektuari esker, ahozko ondarearen transmisioan eta euskalkien ezagutzan oso erabilgarria izan daitekeelako.

Info gehiago:

- <http://www.ahotsak.com/albisteak/ahotsak-ek-10-urte-jaialdia-elgetan-martxoaren-15e/>
- <http://www.ahotsak.com/info/>
- Badihardugu Elkarte: 943 12 17 75 / ahotsak@ahotsak.com
- Argazkiak: www.flickr.com/photos/badihardugu
- Ikusentzunezkoak: www.youtube.com/ahotsak